

**EZ OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA**

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra  
**Bilera-zenbakia:** 2021ICGO0013  
**Eguna:** 2021-11-16  
**Ordua:** 10:00 – 10:15  
**Tokia:** Alkatetza

**Bertaratuak**

- Xabier Urdangarin Lasa .....Astigarragako EH BILDU
- Aintzane Barandiaran Ezponda.....Astigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....Astigarragako EH BILDU
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV

**Bertaratu ez direnak**

- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

**Idazkaria**

Kontxi Urdampilleta Santamaría

**Aztergaiak**

<b>EGUNEKO AZTERGAIK</b>	<b>Zk / Nº</b>	<b>ORDEN DEL DIA</b>
2021eko urriak 26ko akta onartzea	<b>1.</b>	Aprobar el acta de 26 de octubre de 2021.
Urumea kaleko etxebizitza baten gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.	<b>2.</b>	Derecho de tanto y retracto sobre una vivienda de Urumea kalea.
Kontratazio-espeditzea: Argiteri publikoko luminarien ordezkapena.n esleipena	<b>3.</b>	Expediente de contratación: sustitucion de luminarias del alumbrado público. Adjudicación
Ubarburu Zabalpena 22 HIEren Plan Partziala	<b>4.</b>	Plan Parcial de la AIU 22 Ubarburu Zabalpena
Informazioa, galderak eta eskariak	<b>5.</b>	Información, ruegos y preguntas

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1- 2021eko urriak 26ko akta onartzea**

**1.- .Aprobar el acta de 26 de octubre de 2021.**

Akta aho batez onartu da.

El acta se aprueba por unanimidad.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **2.- José Antonio Martín García lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari buruz egindako eskaerari buruzko espedientea**

Alkateak Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

*José Antonio MARTIN GARCIA jauna, 72465040-K NAN zenbakia duela, hurrengo etxebizitzaren azalera-eskubidearen %100aren jabea da:*

*Urumea kalean dagoen babes ofizialeko etxebizitza, 6. ataria, 5. solairua, E zenbaki, 54,95 m<sup>2</sup> erabilgarri, EB3-0240/13-LE-034 espediente-zenbakiarekin.*

*Eranskin hauek ditu:*

*109. trastelekua, 3,90 m<sup>2</sup>-koa, eta 123 garaje-plaza, 24,28 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarri konputagarria duena.*

*2021eko abuztuaren 27an (2021-3604 erregistro-zenbakiarekin) José Antonio Martín García jaunak idatzi bat aurkeztu zuen, inolako dokumentaziorik aurkeztu gabe, eta honako hau adieraziz:*

*“Para venta de vivienda VPO, solicito si se va a ejecutar derecho de tanteo y retracto. Es urgente para poder adquirir vivienda tasada”.*

*Udalak hala eskatu ondoren, 2021eko irailaren 16an (erregistro-zenbakia: 2021-3877) Maite Artola andreak (bere ordezkaritza egiaztatu gabe) salerosketa kontratua aurkeztu zuen, sinatua 2021eko irailaren 8an, José Antonio Martín García jaunaren eta Iñigo Domínguez Macaya jaunaren artean.*

*Etxebizitza hori erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren erregimen iraunkorari atxikita dago, eta, beraz, kontratua Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sai-lak oniritzia eman dio, 2021eko irailaren 8an, etxebizitzaren eta eranskinen eskualdaketaren prezioa onartu da, guztira ezarriz EHUN ETA HAMABOST MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI ETA HOGEITA LAU EURO (115.176,34 €).*

### **2.- Expediente respecto a la solicitud de derecho de tanteo y retracto realizada por José Antonio Martín García**

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

*Don José Antonio MARTÍN GARCÍA, con D.N.I nº 72465040-K- es propietario del 100% del derecho de superficie de la siguiente vivienda:*

*Vivienda de protección oficial ubicada en Urumea Kalea, portal 6, piso 5, letra E de 54,95 m<sup>2</sup> útiles con número de expediente EB3-0240/13-LE-034.*

*Tiene como anejos:*

*Trastero número 109, de 3,90 m<sup>2</sup>, y plaza de garaje nº 123, con superficie útil computable de 24,28 m<sup>2</sup>.*

*El 27 de agosto de 2021 (nº de registro 2021-3604) Don José Antonio Martín García presentó un escrito, sin aportar documentación alguna, y manifestando lo siguiente:*

*“Para venta de vivienda VPO, solicito si se va a ejecutar derecho de tanteo y retracto. Es urgente para poder adquirir vivienda tasada”.*

*Tras ser requerido por el Ayuntamiento, el 16 de septiembre de 2021 (nº de registro 2021-3877) Doña Maite Artola (sin acreditar su representación) presentó el contrato de compraventa formalizado el 8 de septiembre de 2021 entre Don José Antonio Martín García y Don Iñigo Domínguez Macaya.*

*Dicha vivienda se halla acogida al régimen de Vivienda de Protección Oficial, de régimen general, con carácter permanente, por lo que el contrato ha sido VISADO por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, con fecha 8 de septiembre de 2021, habiéndose aceptado el precio de la transmisión tanto de la vivienda como los anejos que se establece en su totalidad en CIENTO QUINCE MIL CIENTO SETENTA Y SEIS CON TREINTA Y CUATRO*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

euros (115.176,34 €).

*Astigarragako Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin batera, lehentasunez eskuratzeko eskubidea du.*

*2021eko azaroaren 5ean (2021-4709 erregistrozenbakia), Iñigo Domínguez Macaya jaunak idatzia aurkeztu zuen adieraziz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 126. artikulua aplikatuz, bi hilabeteko epea igaro zela Udalak eskubidea gauzatzeko, eta, beraz, iraungita zegoela.*

*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 126.1 artikulua honako hau ezartzen du:*

*1 – Aurreko artikuluan aipatutako eremuen barruan dauden ondasun higiezinak jabeek, betiere, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen titulartasuna duen administrazio titularri jakinarazi beharko diote ondasun horiek kostu bidez besterentzeko erabakia, administrazioa lehentasunez erosteko eskubideaz baliatu ahal izateko. Aurreikusitako prezioa, ordaintzeko modua eta eskualdaketa gainerako funtsezko baldintzak adierazi beharko dira, bai eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea ere. Eskubide horretaz baliatzeko epea bi hilabetekoa izango da, ondasunaren titularraren administrazioaren erregistroan jakinarazpena sartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*

*José Antonio Martínek 2021eko abuztuaren 27an aurkeztutako idazkiak EZ ditu betetzen artikulua horretan eskatzen diren baldintzak. Ondorioz, EZ dira igaro indarreko legerian ezarritako bi hilabeteak.*

*Kontun harturik, Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari dagokionez, oro har, etxebizitza babestuei buruzko legeria aplikatu behar dela, eta, zehazki, Babes ofizialeko etxebizitzaren araubide juridikoari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua.*

*Kontuan harturik Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 116. artikuluan xedatzen duena ondasun higiezinak zuzeneko eskurapenaren bidez eskuratzeari*

*El Ayuntamiento de Astigarraga, junto con Gobierno Vasco, cuenta con un derecho de adquisición preferente.*

*El 5 de noviembre de 2021 (número de registro 2021-4709), Don Iñigo Domínguez Macaya presentó escrito en el Ayuntamiento, manifestando que, en aplicación del artículo 126 de la Ley 2/2006 de Suelo y urbanismo, había transcurrido el plazo de los dos meses para que el Ayuntamiento pudiese ejercitar el derecho, por lo que éste se había caducado.*

*El artículo 126.1 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo establece lo siguiente:*

*“1.- Los propietarios de bienes inmuebles comprendidos en los ámbitos referidos en el artículo anterior deberán comunicar a la administración titular de los derechos de tanteo y retracto la decisión de proceder a su enajenación onerosa, con expresión del precio y la forma de pago proyectados y de las demás condiciones esenciales de la transmisión prevista, así como el domicilio a efecto de notificaciones, a fin de posibilitar el ejercicio del derecho de tanteo. Este derecho podrá ejercerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la entrada de la comunicación en el registro de la administración titular del mismo”.*

*El escrito presentado el 27 de agosto de 2021 por José Antonio Martín NO cumple con ninguna de las condiciones exigidas en el mencionado artículo. En consecuencia, NO han transcurrido los dos meses establecidos en la legislación vigente.*

*Considerando que en cuanto al derecho de tanteo y retracto es de aplicación la legislación de viviendas protegidas en general y, en concreto, el Decreto 39/2008, de 4 de marzo sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial.*

*Considerando lo dispuesto en el artículo 116 de la Ley Ley 33/2003 del Patrimonio de las Administraciones Públicas sobre la adquisición de inmuebles por el procedimiento de adquisición*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*buruz.*

*Hori guztia ikusita, eta kontuan harturik udal arkitektoak ondasuna eskuratzeko komenigarritasunari, ondasuna bideratuko den xedeari eta tasazioari buruz egindako txostena, eta udal idazkariak eskuratzeko-prozedurari buruz egindakoa, akordio hau hartzen da:*

**Lehenengoa.-** *Urumea kalean dagoen babes ofizialeko etxebizitza, 6. ataria, 5. solairua, E zenbaki, eta bere eranskinak lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzea. (espediente-zenbakia: EB3-0240/13-LE-034).*

**Bigarrena.-** *Iñigo Domínguez Macaya jaunak 2021eko azaroaren 5ean egindako eskaera ezestea, Udalak lehentasunez erosteko eskubidea legez ezarritako epean baliatu duelako.*

**Hirugarrena.-** *Ebazpen hau José Antonio Martín García jaunari eta Iñigo Domínguez Macaya jaunari jakinaraztea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

### **3.- Kontratazio-espediente: Argiteri publikoko luminarien ordezkapenaren esleipena**

Alkateak Kontratazio Mahaiko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

*2021eko urriak 26ko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen argiteri publikoko luminariak ordezteko obraren esleipena mahai gainean uztea, zehaztu arte LEYCOLAN SAL enpresak aurkeztutako eskaintza eginezina den nabarmenki baxua izateagatik.*

*Azaroaren 2an, LEYCOLAN SAL enpresak eskaintako prezioaren maila baxuaren justifikazioa aurkeztu zuen. Udal teknikariak dokumentazio hori aztertu du, eta txosten teknikoan adierazi du aurkeztutako eskaintza onar daitekeela, baita ere zergatik ez den ulertu behar eskaintza anormalki txikia dela.*

*directa.*

*A la vista de todo ello, y teniendo en cuenta el informe emitido por el arquitecto municipal, en relación a la conveniencia de adquisición, el fin al que se va a destinar bien y la tasación del mismo, así como el emitido por la secretaria municipal sobre procedimiento de adquisición, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Primero.-** *Ejercitar el derecho de tanteo sobre la vivienda de protección oficial sita en Urumea Kalea, portal 6, piso 5º, letra E, con el número de expediente EB3-0240/13-LE-034.*

**Segundo.-** *Desestimar la petición realizada por Don Iñigo Domínguez Macaya el 5 de noviembre de 2021, debido a que el Ayuntamiento ha ejercitado su derecho de tanteo dentro del plazo legal establecido.*

**Tercero.-** *Notificar la presente resolución a Don José Antonio Martín García y a Don Iñigo Domínguez Macaya.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen **por unanimidad**.

### **3.- Expediente de contratación: sustitución de luminarias del alumbrado público. Adjudicación**

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Mesa de contratación

*La Junta de Gobierno Local de 26 de octubre de 2021 acordó dejar sobre la mesa la adjudicación de la obra de sustitución de luminarias de alumbrado público, hasta determinar si la oferta presentada por LEYCOLAN SAL resulta inviable por haber sido formulada en términos que la hacen anormalmente baja*

*El 2 de noviembre la empresa LEYCOLAN SAL presentó la justificación del bajo nivel del precio ofertado. Documentación que ha sido analizada por el técnico municipal, la cual en su informe técnico ha señalado que la oferta presentada puede ser admitida, y así como las razones por la que no debe entenderse formulada la oferta en términos que la hagan anormalmente baja*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*Aipatutako guztiagatik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordio hauek onartu ditu:*

**Lehena.**- Argiteri publikoko luminariak ordeztuko kontratua LEYCOLAN SAL enpresari esleitzea 65.202 eurotan (bez kanpo), lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan baita, hain zuzen, 96 puntu. Esleipena baldintzatuta egongo da hurrengo atalean adierazitakoari betetzera.

**Bigarrena.**- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, 3.260,10 eurotako behin betiko bermea jarri beharko du Udaleko Diruzaintza Sailean; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboen 26. klausulan adierazten den moduan.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

*Por todo lo expuesto, la Junta de Gobierno Local adopta los siguientes acuerdos:*

**Primera.**- ADJUDICAR –concionada al cumplimiento de lo estipulado en el acuerdo segundo– el contrato de sustitución de luminarias del alumbrado público a la empresa LEYCOLAN SAL por un importe de 65.202 euros(sin IVA), al ser la empresa que mayor puntuación a conseguido en la licitación, 96 puntos en concreto.

**Segunda.**- La empresa adjudicataria deberá – en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación del acuerdo – presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipulan en la cláusula 26 del pliego de condiciones administrativas, así como depositar en el Departamento de Tesorería del Ayuntamiento la garantía definitiva por el importe de 3.260,10 euros.

**Tercera.**- Notificar el presente acuerdo a todas las interesadas en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **4.- Ubarburu Zabalpena 22 HIEren Plan Partziala**

Alkateak Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

**Lehena.**- Ubarburu New SLk aurkeztutako Ubarburu Zabalpena 22 HIEren Plan Partziala izapidetzea legez ezinezkoa dela deklaratzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren uztailaren 12ko 294/2021 epaia bere horretan betetzea ezinezkoa dela adierazteko, lurzoru hori lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoelako HAPOnen aldaketa puntualari buruzko espedientearen arabera. Espediente hori behin betiko onartu zuen Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2021eko irailaren 21eko batzordean.

**Bigarrena.**- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari eskatzea uztailaren 12ko

### **4. Plan Parcial de la AIU 22 Ubarburu Zabalpena**

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

**Primero.**- Declarar la imposibilidad legal de tramitar el Plan Parcial de la AIU 22 Ubarburu Zabalpena presentado por Ubarburu New S,L y de cumplir en sus propios términos la sentencia 294/2021, de fecha 12 de julio del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, debido a que dicho suelo está clasificado como suelo no urbanizable en virtud del expediente de Modificación puntual del PGOU aprobado definitivamente por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral en sesión de 21 de septiembre de 2021.

**Segundo.**- Solicitar al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco que acuerde la



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

294/2021 *Epaia betearazteko legezko ezintasuna erabaki dezala.*

*imposibilidad legal de ejecución de la Sentencia 294/2021 de fecha 12 de julio.*

**Hirugarrena.-** Akordio hau Ubarburu New SLren ordezkariari jakinaraztea, eta horrekin batera udaleko aholkulari juridikoaren 2021eko azaroaren 11ko txosten juridikoa eranstea.

**Tercero.-** Notificar el presente acuerdo al representante de Ubarburu New S.L., adjuntándole el informe jurídico de la asesora jurídica municipal de fecha 11 de noviembre de 2021.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen **por unanimidad**.

### **5.- Informazio, galdera eta eskariak**

#### a.- Covid-19.

Alkateak adierazi du udalerriko egoera hobera egiten dagoela dirudi arren, inzidentzia metatua oraindik 1400 etik gora dagoela. Gaineratu du osasun publikotik egun hauetan jasotako erantzuna oso kaskarra izango dela, eta jaurlaritzak Astigarraga bezalako udalerrientzat neurriak onartzeko asmoa duenez, horien berri herritarrei emango zaiela, bando eta webgunearen bidez.

#### b.- Azaroko batzordeak eta abenduko tokiko batzarra eta osoko bilkura

Nerea zinegotziak galdetu du azaroan batzordeak egiteko asmorik dagoen, eta erantzun zaio kulturako batzordeaz gain (arratsaldean dena), hilak 23an egingo direla ogasun batzordea eta hirigintza batzordea.

Bestetik, eta abenduko bilereira begira, adierazi da tokiko batzarra eta osoko bilkura abenduaren 28an izan beharko luketeela, eta gaia oraindik aztertu gabe egon arren, horiek – beste urteetan bezala – aurreratzea aurreikusten dela.

### **5.- Información, ruegos y preguntas.**

#### a.- Covid-19.

El alcalde señala que aunque la situación del municipio parece estar mejorando, la incidencia acumulada sigue siendo superior a 1400. Añade que la respuesta recibida estos días desde la sanidad ha sido muy deficiente, y que dado que el Gobierno tiene la intención de aprobar medidas para municipios como Astigarraga, las mismas se darán a conocer a la ciudadanía a través del bando y de la página web.

#### b.- Comisiones de noviembre y junta de gobierno local y pleno de diciembre

La Concejala, Nerea, pregunta si hay intención de hacer comisiones en noviembre, a lo que se le contesta que además de la comisión de cultura (que es a la tarde), el día 23 se celebrarán la comisión de hacienda y la comisión de urbanismo.

Por otra parte, y de cara a las reuniones del mes de diciembre, se señala que el Pleno y la junta de gobierno deberían celebrarse el 28 de diciembre, y que aunque todavía no se ha tratado el tema, se prevé adelantarlo, como otros años.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2021eko azaroaren 16an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría  
Ordezko udal-idazkaria